

Ikasturte berria hasi da, arazoak eta prekarietatea mantentzen dira

Irailaren 11n UPV/EHUko ikasturtearen hasiera-ekitaldia egin da Gasteizko Letren fakultatean, errektorearen eta hiru probintzietako Lehendakariaren parte-hartzearekin, besteak beste. Ohikoa den moduan, mezu positiboak dira nagusi, kontzeptu batzuk erabiliz: bikaintasuna, kalitatea, unibertsitate modernoa, etorkizunera begira, gizartearekin eta euskararekin konprometitua. Hala ere, alderdi batzuetan hobekuntzak egon badira ere, beste eremu askotan arazo batzuk sortu edo mantentzen dira, kasu batzuetan kroniko bihurtzeraino.

Horregatik, ikuspegi partzial batetik zabaldu nahi duten gatazkarik gabeko irudi positiboaren aurrean, LAB sindikatua kontzentratu da ekitaldi honen harira, langileok EHUn dauzkagun arazoak salatzen eta beste unibertsitate eredu bat aldarrikatzeko. Izan ere, baliabide zein borondate falta direla eta, arazo eta diskriminazio zein prekarietate egoera asko topa ditzakegu gaur EHUn. Batzuk aipatzeagatik:



Kontzentrazioa Letren Fakultatean

Unibertsitate publiko modernoa eta kalitatezkoa

... baina behar duen finantzaketa ukatzen

2019 urterako Eusko Jaurlaritzak unibertsitate publikoa finantzatzeko esleitutako diru- partida ez da nahikoa garatu behar dituen funtzioetarako. Eraikin, azpiegitura eta tresneria egokiaz gain, langileak dira baliabiderik garrantzitsuenak. Hortaz, langileen kolektibo ezberdinen egoerari erreparatu behar zaie, guztiek lan-baldintza duinak izateko.

- Bikaintasuna

... baina langile gehienak behin-behinekotasunean murgilduta

Kasu batzuetan kontratuak behin-betikoak ez izatea ulergarria bada ere (batez ere ordezkapenen kasuan), EHUn dauden langile guztien % 60a behin-behinekota da, kasu askotan EHUn 5, 10, 15... urteak emanda eta lanpostua egonkortzeko aukerarik izan gabe.

- Top-ranking-etan kokatuta

... baina lanaldi partzialeko irakasleek 400-800 euro kobratzen

Ordezkapenetan zein elkartu plazetan aritzen diren lanaldi partzialeko irakasleei irakaskuntza eta tutoretza orduak baino ez zaizkie ordaintzen (400-800 euro hilabetearen arabera), nahiz eta kudeaketa egin, formazioa jaso eta, kasu askotan, ikerketa egin. Lanpostu duin bat lortzeko itxaropenean oinarritutako prekarietatea...

- Euskalduna

... baina zerbitzua euskaraz bermatu gabe

Neurri eraginkorrak hartu eta baliabide nahikorik jarri ordez, EHUKO euskalduntze prozesua inertziaren esku dago, planteamendu estrategiko konprometitua izan gabe. Oraindik ezin da gradu

batzuk guztiz euskaraz egin, eta are gutxiago graduondoko ikasketetan, non euskara oso titulazio gutxitara mugatzen den. Publikoari begira zein langileen arteko harremanetan, euskararen erabilera ez dago bermatuta arlo askotan oraindik.

- Erantzukizuna

... baina osagarrien deialdiak etengabe oztopatuta

Irakasle-ikertzaileen soldatak duintzeko sortutako osagarrien sistemari oztopoak jarri dizkio Eusko jaurlaritzak azken urteetan, deialdiak ez ateraz edota ordaintze-urtea atzeratzeko deialdiak berandutuz edozein zirrikitu erabiliz. Modu horretan ordaindu beharreko diru hori aurreztea lortu dute, langile askoren kontura.

- Ikerketaren motore

... baina ikertzaile ez-finkoak diskriminatzen

Ikertzaileak egonkortzeko ibilbidea ez dago definituta, eta askok urteak eta urteak daramatzate aldi baterako kontratuak uztartzen, ziurgabetasunean, osagarri batzuk ezin eskatu edota deialdi batzuetan ezin parte hartu. Doktoretza aurreko zein osteko ikertzaileen kasuan, diskriminaziorik gabeko lan-baldintza duinak lortu behar dira beren eskubideak errespetatuz.

- Gardena

... baina langileen eta ikasleen parte-hartzea oso mugatua

Kolektibo ezberdinek EHUko eztabaidetan parte-hartzeko daukaten aukera eta eragina oso mugatuta dago. Gainera, ordezkari zuzenak dagokionez, kolektibo zabal batzuk oso minorizatuta daude. Foro itxiek eta iraganeko inertziek ordezkatzeko dute maiz ideien konfrontazioa.

Autokonplazentziazko irakurketen gaintetik, EHUko langileok benetako irtenbideak behar ditugu dauzkagun arazo eta prekarietate egoeren aurrean, eta euskal jendarteak bere beharrei erantzuten dien unibertsitate publiko, euskaldun eta baliabide nahikoz hornituta behar du. Horretan dago eta egongo da LAB: salatzen, aldarrikatzen, ekimen eta proposamenak egiten eta langileen eskubideak defendatzen.



LABeko EHUko sail sindikaletik salatu nahi dugu poliziak EHUkoak diren guneen okupazioa bertako langileak Letren fakultateko aurreko eremutik kanporatuz eta zenbait ikasle identifikatuz eta grabatuz. Era berean salatu nahi dugu EHUko gobernu taldearen Segurtasun Sailarekiko morroitzia, EHUko guneen okupazio hau onartzen eta EHUko langileak erabiltzeko eskubidea urratuz.

Diskurtso adeitsuek ezin dute ezkutatu heldu beharreko neurriak!

Beste unibertsitate eredu bat behar dugu!

Adierazpen askatasuna!